



Loiolako Iñigoren kalea, 7 · 20700 ZUMARRAGA Gipuzkoa · Telf. 943 72 15 14 · Fax 943 72 56 73  
[www.lasallezumarraga.eus](http://www.lasallezumarraga.eus) · [aldizkaria@lasallezumarraga.eus](mailto:aldizkaria@lasallezumarraga.eus)

# La Salle Legazpi: hazten



|                                                                                     |                                                 |              |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|--------------|
|    | Editoriala<br><b>Bakearen inguruan</b>          | <b>2-3</b>   |
|    | La Salle Legazpi<br>Calendar                    | <b>4-9</b>   |
|    | Berriak                                         | <b>10-11</b> |
|    | Elkarrizketa<br><b>AMPA: erakunde altruista</b> | <b>12-15</b> |
|    | Gure Txokoa<br><b>Elkartearen harremana</b>     | <b>16-17</b> |
|    | Erreportaia<br><b>Hezkuntza programak</b>       | <b>18-29</b> |
|   | Irakasleen txokoa                               | <b>30-33</b> |
|  | Ikasleen txokoa                                 | <b>34-41</b> |
|  | Familien txokoa                                 | <b>42-47</b> |
|  | Ikastetxea lehen eta orain                      | <b>48-49</b> |
|  | Zorionak                                        | <b>50-53</b> |
|  | UGLE                                            | <b>54-55</b> |
|  | Kontrazala                                      | <b>56</b>    |

 La Salle Legazpi  
 @LaSalleLegazpi  
 LaSalle Legazpi Zumarraga-Urretxu

## Bakearen inguruan

Aitor Macho

Gureeskola.com-en aurreko alean, orrialde hauetatik, baieztatzen genuen giza ontasuna pertsonaren jakinduriaren isla dela. Oraingo honetan, ildo beretik jarraituz, eta orain dela gutxi eskola osoan ospatu duguna gogora ekarriz, esan dezakegu benetako Bakea jakinduria eta maitasunaren emaitza dela; beraz, ontasunari lotuta datorkio: ontasuna gaiztakeriarekiko borrokan garaile ateratzen da. Bakearen izaeratik bakearen biderako jarrerak sortzen dira (laguntasuna, elkarbizitza, gizakion arteko lotura) eta beste jarrera batzuk desagertzen dira (berekoikeria, lehiakortasuna, inbidiak).

Egia da zaila dela bi jarrera mota hauek elkarrengandik isolatzea, bakea eta bortxakeria elkarren eskutik joaten direlako. Izan ere, bakea lortzeko bide horretan, askotan gertatzen da norbaitek banakako akordio eta etekinak lortu nahi izatea; eta bakea, berez, exigentzia, baldintza, eskaera eta protokolorik gabe lortu beharko litzateke. Hala ere, tresna horiek, askotan, bakea negoziatzeko eta prozesua luzatzeko erabiltzen dira.

Testuinguru eta proposamen askotan bake beharrari buruz ugari hitz egiten da eta, berriz, bide horretan gutxi aurreratzen dugula ikusten dugu.

Eguneroko albisteek ikustarazten digute benetako errealitatea. Asko hitz egiten dugu, asko eztabaidatzen dugu gai horren inguruan, baina, benetan ari gara ondo erabiltzen bakearen kontzeptua?

Agian, gaur egun gure sentsibilitatean eragin handia daukan kontzeptua aprobetxa genezake: ekologia. Izan ere, beste gai askorekin lotura anitzak izateaz aparte, bakeak ere badauka bere alderdi ekologikoa, zaindu behar dugun ingurunearen parte garen neurrian. Kreazioa eman zaigu gu bizitzeko eta kreazio hori aurrera eramaten laguntzeko eta, eginbehar horretan, beste gizaki guztiok jaso ditugu kreazio horren osagairik garrantzitsuenak.

Bakea ondorio bat da: justiziarena, berdintasunarena, askatasunarena, oparotasunarena, elkartasunarena, gizaki bakoitzak bere ahalmenak garatzeko aukera izatearena, bere behar guztiak asetuta izatearena. Gure inguruan gertatzen denaren eta gure jarrera propioen ondorioa al da bakea? Bakearen kontrako egoerak ez dira ingurunetik sortzen, gizakiok sortzen ditugu, beraz, beti dago bakerako

aukera. Bakea gizakion barrenetik sortzen da, aldaketa batetik, pentsatzeko beste era bat moldatzetik. Zerbait egiten al dugu, benetan, bakearen alde, martxak egiteaz aparte, uso zuriak margotzeaz aparte, manifestuak aldarrikatzeaz aparte?

Egia da ez daukagula baliabide handirik maila handiko aginduak egiteko, bakea betearazteko, baina badaukagu gure gertukoengan eraginik, gure bizitzarekin bakea zabaltzeko, adiskidetasuna zabaltzeko, gure izatearekin bakea biderkatzeko.

Bakearen oinarria elkarbizitzaren garrantziaz jabetzean dago. Eta hori haurtzarotik ikasten da, gure giro gertuenetan, familia eta eskolan, esperientzia afektibo positiboak sortuz. Etxean eta eskolan ikasi daitezkeen balioak (tolerantzia, errespetua, elkartasuna, elkar-ulertzea, komunikazioa, samurtasuna), bizi egiten direlako ikasten dira.

Horregatik, gu, guraso eta hezitzaileok, benetako ardura daukagu bizitzarako hezteko prozesuan. Eta bizitzarako hezteko bakerako hezteko da, izaten ikasteko prozesuan laguntzen, bizitzen eta elkarbizitzen ikasteko prozesuan laguntzen. Eskolan ere, etxeko gairik garrantzitsuena den bezala, bizitza da ikasgairik garrantzitsuena.

Eguneroko gertaerak, pentsamenduak eta kezkak, komunikazioarekin maneiatzen badira, desadostasunak era positiboan ebazten dira. Etxean eta eskolan tokatzen zaigu segurtasuna, balorea, baikortasuna transmititzea. Bakea ez da hutsean ematen, baizik eta elkarren arteko harremanetan.

Beraz, bakea guztion konpromiso eta ardura da. Eta eginbehar horretan ondo bameratuta dauzkagu gure erreferentearen hitzak, hau da, Gandhik esandakoak: *“ez dago bakerako biderik, bakea da bidea”*.





**9** La Salleko DBH 1. mailako neska-mutilek gosari osasuntsu bat nola egin ikasteko aukera izan zuten. Zumarragako Osasun Zentroko erizain talde batek gosari egoki eta osasuntsu batek bete behar dituen baldintzak agertu zizkien. Jarraian, teorian ikasitakoa praktikan jarri zuten gosari osoa eta oparoa egin ez. Amaitzeko, ikasleek izan zituzten zalantzak argitu nahian, hizketaldi atsegin eta interesgarri bat izan zuten. Laburbilduz, gosari osasuntsu batek hiru elikagai multzo izan behar ditu: esnekiak (esnea, jogurta...), fruta (osorik edo zukuan) eta zerealak (ogia...) Honi, lagunarte aproposa (familia, lagunak...) gehitzen badiogu, eguna hasteko modu ezin hobea izango dugu.



**10** Haur Eskolako umeek kotoiak erabilera artistikoa izan dezakeela ikasteko aukera izan zuten esperientazio ekintza jostagarri baten bidez.

**15** DBH4ko ikasleek "Baga, Biga, Higa" ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten euskal musikaren historiari gainbegirada bat emanaz, Mikel Markezekin eta Eñaut Elorrietarekin. Bikoteak euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena helburu dituen proiektua gauzatu du hitzaldi-kontzertuen bidez, euskal musika ezagutzera emateko, 60ko hamarkada aurreko garaietatik hasi eta gaur egunera arte. Egileen hitzetan, "teknologia berriek, informazio eta aukera gain-dosi eta globalizazio orokor batek markatutako garai batean bizi gara". Zapping garaia, diote. Horren aurrean, "gure musikagintzaren historia, erreferenteak eta zaletasuna" sustatzen ahalegintzen dira "Baga, Biga, Higa" egitasmoarekin. Eta ikasleek biziki gozatu zuten.



**16** Abenduan ospatutako ekintzan, Izartxo taldeko arduradunek bingo arratsalde bat antolatu zuten. Horretarako, parte hartu zuten ikasleak buru-belarri aritu ziren lanean arratsalde osoan: lehenik, bingoa jolasteko kartoiak diseinatu zituzten; ondoren, kartoi horiek margotu, apaindu eta moztu zituzten; eta azkenik, guztiek batera kaperan bingoa jolastu zuten, sariak banatuz irabazleen artean.

**18** Ohitura denez, AMPA Guraso Elkarteak urtero La Salle Legazpin ospatzen den Postal eta Jaiotza Lehiaketako sariak banatu zituen. Zorionak irabazleei!



**19** La Salle Legazpi ikastetxeko neska-mutilek egindako jaiotzen eta postalen erakusketa ikusgai egon zen Zelai-Arizti Kultur Etxean abenduak 17tik urtarrilaren 7ra. Ikasleek adimena zorroztu eta sormenari heldu behar izan zioten eskura zituzten materialekin jaiotzak egiteko. Beira, kartulina, plastikozko edalontziak, zapi zaharrak, lego piezak edota botaila kortxoak erabili zituzten emaitzik ikusgarriena lortzeko. Pertsona asko gerturatu zen erakusketa ikustera Gabon giroan murgildu eta dekoraziorako ideia berriak hartzeko asmoz.



**19** Haur Eskolako umeek biziki ospatzen dituzte Gabonak. Hala ere, beraiek nahiago dute beraiek egindako zuhaitza apaintzea. Begira zein zuhaitz dotorea apaindu zuten!



**20** Abenduaren 20an, eta urtero lez, LH 5. eta 6.mailako ikasle eta irakasleak Argixao gerontologikora joan ziren egoitza alaitasunez eta ilusioz betetzeko asmoz. Gabon kanteak poza eta malenkolia eragin zien bertakoei, eta Gabonetako postalen banatzearen bidez, berriz, "urtean zehar beraien ondoan izango garela" erakutsi zieten gure ikasle eta irakasleek.



**21** Eskolako txikienek primeran pasa zuten txokolatea dastatzen. Izan ere, beraien kasara esperientatzen uztea gauza berriak ikasteko era ezin hobea da.



**22** Gabon Gaua gertu, Haur Eskolako eta Haur Hezkuntzako umeek urteko bisitarik bereziena jaso zuten: Olentzerorena. Txikienek Olentzerori eskariak egin zizkieten, bere omenez hainbat abesti abestu zizkieten eta, amaitzeko, beraiek egindako eskulan batzuk eman.



**24** Hona hemen AMPAK antolatutako Gabonetako zozketaren irabazleak. Zorionak eta on egin!



**24** Aurten, Gainzuri, Ikastola eta La Salle Legazpi ikastetxea elkarrekin atera ziren Gabon Egunean kaleetan abestera. Gure ikasle, irakasle eta familiak 11:00etan ikastetxetik atera ziren, 12:00etan Zelai Arizti plazan elkartu ziren beste eskoletako partaideekin eta bertan lau abesti abestu zituzten elkarrekin. Bukatzeko, hamaiketakoak jan zuten ikastetxean.



Sasieta Mankomunitateak abian jarritako "Hondakinak Kitto!" kanpaina hartu dute parte DBH3ko ikasleek. "Ba al dakigu zenbat hondakin sortzen dugun?, Gure hondakinak egoki sailkatzen al ditugu?, Zertarako balio du sailkatzeak?, Zer egiten da gero hondakin horiekin?...". Abiapuntu gisa galdere hauek hartu eta gaur egungo gizartearen izaera kontsumistaren eraginak aztertu zituzten gaian adituak diren hezitzaileen eskutik, eredu aldaketa baten beharra dagoela ohartuz. Bestalde, hondakinen kudeaketan hiru gakoak ere azpimarratu zizkieten: murrizketa, berrerrabilera eta birziklapena. Bide horretan hondakinak ondo nola sailkatu azaldu zitzaizen, oraindik zalantzak sortzen dituelako sarritan.






**8** DBH 3 eta 4. mailako ikasleek hezkuntza afektibo-sexualari buruzko ikastaro batean parte hartu zuten. Saio hauen helburua afektibitatea eta harremanak lantzea izan zen: ni, zu, gu, emakumeak, gizonezkoak, izaerak, gorputza, lotsak, beldurrak, pozak, sexuen arteko berdintasuna, pertsonarteko leialtasuna, ezberdintasunak, autonomia emozionala, joera sexualen arteko berdintasuna,... Saio hauek udaletxeko Drogomenpekotasun Prebentzio Sailaren laguntzarekin egin ziren (informazio gehiago [www.harremanak.eus](http://www.harremanak.eus) webgunean).



**15** 2 urteko gelako umeak gogotsu aritu ziren neguko zuhaitzen apainketa lanetan.



**15** Urtarrileko bi asteetan La Salle Legazpi Tinduf-eko kanpalekuetan dauden Sahararren aldeko karabanen parte hartu zuen. Janaria jaso genuen eta hori mugitzen duen Urretxuko "Hare Haizea" elkarteak bila etorri zen. Elkarrekin haur martxoaren hasieran abiatu zen Sahara aldera eta gure aportazio xumea ere bertara eramango dute.

HH LH DBH




**18** Haur Eskolan ez dago atseden hartzerik: oraingo honetan, umeek zirkuito bat zeharkatu behar izan zuten beraien gaitasun psikomotrizak trebatuz.



**19** HH2 urteko haurrek primeran pasatu zuten San Sebastian ospatzen. *Bagera! Gu (e)re bai Gu beti pozez, beti alai!*



**20** La Salle Legazpi ikastetxeak Ate Irekiak antolatu zituen urtarrilaren 20rako, larunbata, familia berriei bertako hezkuntza proiektua eta instalazioak ezagutzera emateko asmoz. Gainera, La Sallek aukera eskaintzen zuen bisita gidatuak egin ahal izateko.



**22** 2 urteko gelako umeen artean ziur zientzialari bat baino gehiago dagoela. Hori dela eta, irakasleek esperimentu bat egitea proposatu zieten ur hotza (solido eran) eta beroa (likido eran) erabiliz. Argazkiak ikusita, gure txikieen esperimentuarekin biziki gozatu zutela dirudi.



**22** DBH 3. eta 4. mailakoen antzera, **25** LH 6. mailakoek "Bel" sexologaren bisita izan zuten. Helburua: sexua "tabu" izaten ez jarraitzea!



**25** Ispilua betidanik umeak erakarri dituen tresna bat izan da, beraien irudia islatzeaz gain argi jokoak sortu daitezkeelako euskarri gisa erabilia.



**26** Gorriaren festak izandako arrakasta ikusita, 2 urteko gelako umeek Urdinaren Festa ospatu zuten.



**27** Gure ikasleek egun batez sukaldean aritzeko trebetasunak praktikan jarri zituzten. Nola? Sukalderitza lehiaketa batean parte hartuz. Taldeka antolatuta, begiraleek banatutako osagaiekin jaki goxoak, deigarriak eta orijinalak sortu behar izan zituzten. Ba ote dago gure ikasleen artean Michelin izarrik?



**30** Mahatma Gandhiren heriotzaren urteurrena oroitzuz, Bakearen Egunean ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek gizakatea egin zuten errefuxiatuei elkartasuna helarazteko asmoz. Lekuko garen giza tragediaren aurrean, sentsibilizatzeko eta baloreetan aberasteko keinu bat. Ken Zazpi taldearen "Itsasoa gara" abestuz eman zioten bukaera ekitaldiari.





**6** Zumarragako Osasun Zentruko erizainen eskutik La Salle Legazpiko irakasleek eta hainbat familiek antsietateari buruzko hitzaldian parte hartzeko aukera izan zuten. Bertan, antsietatea zer den eta gure osasun fisiko eta mentalerarengan dituen ondorio kaltegarrietaz eztabaidatu ondoren, bertaratuek erlaxazio teknika batzuk ikasi zituzten antsietatearen aurrean zer egin jakiteko.



**8** Zentzuak eta ukimena lantzeko zer egin dezakete Haur Eskolako umeek? Poltsa sentsorialekin jolastu!



**9** Ihauteriak La Salle Legazpin ospakizun garrantzitsua dira. Ilusioz beterik txikienak eskolara mozturoriturik etortzen dira jai giroa lagun arratsalde zoragarria pasatzera. Izan ere, Minionsak, piratak, superheroiak,

animaliak... nagusi izan ziren Beloki pilotalekuan gurasoen aurrean ospatu zuten jaialdian. Umeak dantza, irri eta jolas artean murgildu ziren eta, argazkiei erreparatuta, primeran pasa zutela agerian dago.



## La Salle Legazpik desfibriladore bat erosi du ikastetxerako eta DYAren eskutik formakuntza ikastaroa eskaini du ikasle, irakasle eta gurasoentzat

Larrialdi kasuetan nola jokatu jakiteak bizitza salbatu dezake, DYAk adituen iritziz. Horregatik lehen sorospenen inguruko ezagutza eta beharrezkoak diren baliabideak eskura izatea garrantzitsua da. Helburu horrekin, La Salle Legazpik desfibriladore bat erosi du eta eskolako botikinean jarri da, denentzat sarrera irekita dagoen tokian, hain justu.

Desfibriladorea geldialdi kardiakoa gertatzen den kasuetan erabiltzen da eta maneiatzeko duen erraztasuna dela-eta, edonork erabil dezake segurtasunez eta eraginkortasunez, argibideak jarraituz.

### Formakuntza saioak

Desfibriladorea jartzeaz gain, ikastetxeak DYAk irakaskuntza Eskolako kideek zuzendutako bi orduko formakuntza saioak antolatu zituen bertako langile eta irakasleentzat, eta baita ikasleentzat eta familientzat ere.

Zenbateraino desfibriladore batek salba dezake bizitza bat?

Bihotz-arnaseko geldialdiaren kasuan, nahitaezkoa da lehenbailehen bihotz biriken suspertze teknikak praktikan jartzea. Frogatuta dago geldialdi kardiakoaren ostean, igarotzen den minutu bakoitzeko bere onera bueltatzeko aukerak %10 murrizten direla. Zenbait kasutan, bihotzak deskarga elektriko bat edo gehiago behar izaten ditu taupadak egiten hasteko. Gainera, deskargak eraginkorrak izateko bihotz birikak suspertu behar izaten dira konpresio torazioak eta intsuflazio artifizialak eginez. Tratamendu hau desfibriladorearekin bakarrik egin daiteke. Kanpoko desfibriladore automatikoek bihotzaren erritmoa aztertu ondoren, deskarga elektrikoa komeni den zehazten dute.

Gehienetan osasun eremuetatik kanpo gertatzen dira...

Hala da. Horregatik da funtsezkoa lagundu dezaketenek zer egin behar duten jakitea. Bihotzak huts egiten dietenen %95a hil egiten da. 25.000 lagun dira estatu osoan. Eta arazoa gehienetan izaten da lekukoek ez dituztela praktikako suspertze teknikak jakiten.

### Erraza al da desfibriladorea erabiltzea?

Kanpoko Desfibriladore Erdi Automatikoaren erabilera oso da erraza. Bi botoi bakarrik ditu: piztekoa eta deskargarena. Behin deskarga aktibatzen denean, gailuak berak ematen ditu jarraibideak, ahots mezu argi eta ulergarrien bitartez.

**“Geldialdi kardiakoaren ondoren, igarotzen den minutu bakoitzeko bere onera itzultzeko aukerak %10 murrizten dira”**

*Asier Moreno, DYAren Formakuntza koordinatzailea*

Zer erakusten duzue formakuntza saioetan? Eta, La Salleren kasuan?

DYA Gipuzkoak betidanik prebentzioaren eta formakuntzaren aldeko apustua egin du segurtasunari eta lehen sorospenei dagokienez. Larrialdi kasuetarako, DYAk oinarritzko suspertze teknikak inguruko formakuntza mota ezberdinak garatu ditu eta La Salleren kasuan, ondorengoak jaso gauen:

- Nola identifikatu bihotz biriken geldialdia.
- Jarraitu beharreko protokoloa.
- Bihotz biriken suspertze teknikak, konpresio torazikoak eta ahoz ahoko intsuflazioak.
- Bihotz biriken suspertze tekniketan nola txertatu Kanpoko Desfibriladore Erdi Automatikoa.

Desfibriladorea geroz eta gehiago ikusten da gune publikoetan. Zertara behartzen du legeak?

Euskadik 2016ko maiatzaren 30eko araua garatu du. Horrek hainbat espazio publikotan kanpoko desfibriladore automatikoak jartzeko agintzen du. Ondorengo ordenean, derrigorrezkoa da desfibriladoreak egotea baldintza egokietan eta berehala erabiltzeko prest:

- a) Merkataritza gune handietan.
- b) Aireportu eta portu komertzialetan. 50.000 biztanletik gorako herrietako autobus eta tren geltokietan, eta egunean 2000 lagunetik gora ibiltzen diren metro, tren edo autobus geltokietan.
- c) Establezimendu publikoetan. 700 lagunetik gorako aforoa duten establezimendu, ikuskizun edo jardueretan.
- d) 2000 laguneko edo gehiagoko aforoa duten hezkuntza zentroetan.



## La Salle Legazpik jangela berria eta erabilera anitzeko gune bat eraikitzeke lanak hasiko ditu

Ikasleen irakaskuntza-ikasketa prozesuan espazioak duen garrantziaz jabetuta, La Salle Legazpik berrikuntza nabarmena egingo du bere instalazioetan datorren ikasturteari begira. Batetik eskolako jangela berria eraikiko du eraikin zentrolean orain erabiltzen ez den espazio bat birgaituz. Eta bestetik, beheko solairuan dauden garai bateko Lanbide Heziketako lantegiak botako dituzte bertan erabilera anitzeko gune bat eraikitzeke. Psikomotrizitateko edota ikus-entzunezko jardueretarako eta proiektu bidezko lane-arako erabiliko da 400 metro karratuko espazioa, hain zuzen.

“Eskola ikasketa eta elkarbizitzarako tokia izango da neska-mutilek euren etorkizunean beharko dituzten kompetenziak garatzeko. Testuinguru horretan beharrezkoa da estimulatu dituen eta elkarren arteko eta irakasleekiko harremanak erraztu eta sustatu dituen giro hezitzailea sortzea. Zentzu horretan, garrantzitsua da La Sallen egingo dugun eraberritzea”, dio ikastetxe zuzendari den Dani Azurmendik.

Asanblada Orokorrek proiektua onartu ostean, dena prest dago aurrera egiteko eta obrak hasteko. Aurreikuspenen arabera, Aste Santuan hasiko dira jangelako lanekin eta ikasleek datorren ikasturteko irailean estreinatu ahalko dute jangela berria. Gaur egun, 70 bat ikasle erabiltzen dute jangela. Erabilera anitzeko gela geroxeago jarriko da martxan, baina abendurako prest egongo da. Gune honetan garapen psikomotorra edota sortzailea sustatzen duten diziplinak emango dira, besteak beste.





# AMPA: erakunde altruista

**“Historikoki La Sallen beti egon da aktibitate handia. Hemendik atera ziren Irrintzi Dantza Taldea eta Goierri Saskibaloi Taldea”**

Familia gehienek jakin badakite La Salle Legazpi ikastetxeak zer nolako pagotxa duen AMPA elkartearekin, Ikasleen Amen eta Aiten Elkartearekin. Aldiz, egiten duten lana eta duten ekintzen egutegia ez dira sobera ezagutzen. Dituzten ardurak ez dira makalak, Santo Tomasetan 900 txistorra pintxo egitea, kirol arropa erosi eta banatzea edota ikastetxeko beste taldeak finantzatzea, besteak beste.

Elkartearen presidente José Luis Hinojok zuzentzen du elkarte baina ez dagoela inongo hierarkiarik dio. “Elkarren osagarri gara. Lana banatuta daukagu baina inor ez da bestea baino gehiago”.

José Luisekin batera, ondorengo kideek osatzen dute elkarte: José Carlos Ibarzabal, Julia Bartolomé, José Miguel Granado, Silvia Arrazola, Luis Miguel Salvatierra, Miguel Ángel Fernández, Judith Calvo, Itziar Zarandona eta Eguz Molinuevo. Urte eta erdi daramate lanean.





**G**urasoen inplikazioa konpondu gabeko arazoa da hezkuntza zentroetan. Zein da zuen arrazoa AMPAko kide izan eta musu-truk lan zeuen denbora eskaintzeko?

Gure seme-alabengatik egiten dugu. Hezkuntza ez da eskolaren edo irakasleen kontua bakarrik. Gure seme-alaben heziketan parte har dezakegula sinesten dugu. Boluntarioki sartu ginen honetan zeren aurretik zozketa bidez hautatzen ziren kideak eta ikusten genuen ez zela hura biderik egokiena sar zitekeelako ikuspegiarik edo gogorik gabeko jendea. Gurasoen partaidetzaren esentzia galtzen ari zela iruditzen zitzaigun eta animatu egin ginen. Gutako zenbaitek esperientzia bazuen eta beste batzuk gogotsu geunden konprometitzeko eta geure ekarpena egiteko.

#### Zein da zuen papera ikastetxean?

Eskolari laguntza ematea. Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen ditugu. Gabonak aurretik jaiotza muntatzen dugu eta Postal eta Jaiotza Lehiaketako sariak banatu ere bai. Santo Tomasetan txistorrada egiten dugu eta Gabon-gau egunean, hamaiketako. Kirol arropa banatzen dugu eta baita DBHko ikasturte amaierako bidaia eta antzerki taldea diruz laguntzen ditugu, Izartxokin kolaboratzen dugu eta La Salleko Mendi Taldeari eta Arco Iris antzerki taldeari ere diru-laguntza ematen diegu. Horretaz gain, nerabezaroak eta osasuna lotzen dituen ekimen batean parte hartzen dugu prebentzio lana egiteko drogomenpekotasunak, ludopatiak eta bestelako arazoak saihesteko, elikadura osasuntsua edota kirola sustatuz. DBH4ko



luntxa eta urte amaierako afaria ere guk egiten ditugu.

#### Ze aurrekontu duzue?

Gure aurrekontua 15.000 eta 20.000 euro artekoa da. Familia bakoitzaren ekarpena urteko 20 eurokoa da. Antolatzen ditugun jarduera gehienek gastua eragiten dute baina diru-sarrerak lortzeko ekimenak ere garatzen ditugu.

#### Kexa edo esker ona jasotzen duzue nagusiki?

Eskertza. Gainera, laguntzeko prest jende asko dago. Gertatzen dena da guztiok denbora mugatuta dugula eta kosta egiten da konpromisoa hartzea. Bestetik, egia da, elkarteak garenaz, ez duela asko laguntzen jendea animatzeko orduan egin behar den kudeaketa burukratiko guztiak. Laguntzak eskatzeko, agiriak aurkezteko, e.a. gero eta prozedura konplexuagoak dira. Baina jasotako kritika txiki batzuen harira, komunikatu bat zabaltu genuen Gabon aurretik eta erantzun asko jaso ditugu, animoak eta babesa erakutsiz.

#### Nolakoa izan beharko luke eskola-familia harremana?

Seguruenik zuzenagoa. Baina, tira, aro digitalak lagundu du harremana errazten eta gurasoen eta irakasleen arteko hartu-emana gertuagokoa izaten. Sallenet bidez komunikatzen gara. Gaur egun, irakasle baten whatsapp izatera iritsi zaitezke.

#### Nola ikusten duzue eskolaren norabidea jangelaren berritzearekin edota erabilera anitzeko gelaren eraikitzearekin?

Berritzen joan beharra dago. Txispa berri bat sortu da. Eskolaz kanpoko ekintzak ere antolatu dira, komunikazio plan bat dago, esparru digitalean aurrerapausoak eman dira, proiektuetan oinarrituta ikasten da... eta guztira hori oinarritzakoa da.

#### Eskola guztietan ez dute antzerki edo mendi taldea edota Lehengo Ikasleen Elkartea.

Horrela da. Historikoki La Sallen beti egon da aktibitate handia. Hemendik atera ziren Irrintzi Dantza Taldea eta Goierri Saskibaloi Taldea, danborrada... Mendi taldeak 25 urte

daramatza, guztiok mendiaz gozatzeko irteerak antolatzen dedikazio handia eskainiz eta hori eskertzekoa da. Bere garaian eskolan ludoteka zegoen, gaur egun Izartxorekin alderatu dezakeguna. Asteburuetan etortzen ginen, Scalextric-a geneukan, jolasak...

Lehengo Ikasleen Elkarteari dagokionez, berriz, ikusten dugu ez dagoela eskolari oso lotua. Sekulako lana egiten du baina faltan sumatzen dugu eskolarekiko lotura estuagoa. Ikastetxeak AMPA adina behar du Lehengo Ikasleen Elkartea irakaslegoak egiten duen heziketa lanari babesa emateko. Talde guztien artean integrazio handiagoa lortzea nahiko genuke.

#### Zer harreman dauka AMPAko eskolako zuzendaritzarekin edota eskola-ordezkariekin?

Gela bakoitzean delegatu bat dago, batik bat, arazoren bat gertatzen den kasuetarako. Txikiak direnean igerilekura joateko txandak antolatzen dituzte, ikasturte amaieran argazkiak kudeatu...

Zuzendaritzari dagokionez, AMPAko lau kide Zuzendaritza Kontseiluko partaide dira. Alde bien arteko koordinazioa oso garrantzitsua da. AMPAn, irakaslea den ama bat ere badago eta horrek berak hartu-emana handitzeko balio du.

#### Zeintzuk dira AMPAren erronkak?

Aurrekontu justua dugu eta ezinezkoa dugu gidoitik ateratzea baina gauza berriak egiten joango gara. Agian, formakuntza gehitu beharko dugu. Eusko Jaurlaritza, garapen handiegia ez duten elkarteak murrizteko asmoz, formakuntza ematera derrigortuko ditu elkarteak. Lehen ikastaroak antolatu ohi genituen baina jenderik ez zela joaten ikusita, utzi egin genion.



# Elkartea – harremana

Anai Felix Ezama

**“gureEskola.com”** aldizkariaren aurreko alean “Anaia” hitz magikoaren inguruko gogoeta egin genuen, bere zentzu zabalenean. Hala ere, errealitate horrek bizirik iraun dezan, aproposa den gune bat behar du non heldu, hazi eta konprometitu daitekeen. Harreman osasuntsuak existitzen diren Elkarite bat behar du.

**1. Harremana pertsonaren oxigenoa, habitata edo humusa da.** Harremanean nire burua ematen dut, ni naizena ematen dut; eta, ere berean, jasotzen dut; *partaide izatearen sentimendua* dago: fido naiz, trukean ezer eskatu gabe nire burua ematen dut. Harreman honek *askatasuna du oinarri*: nik nahi dudalako, ez behartzen nautelako. Adiskidetasuna sortzen duen askatasun uhin bat da. Zentzu honetan adiskidetasunak

definitzen nau eta pertsona bezala ontzen nau. “Zu” hitzak “ni” izaten laguntzen dit. Zu gabe nia galdu egiten da. Pertsonak bere funtsa, bere aroma, bere xarma galtzen du; berekoia bilakatzen da eta pertsona bezala atrofiatu egiten da. Ezbeharrak sortarazten du eta bizitzak jada ez dauka zentzurik. Hortaz, zertarako bizirik jarraitu?

**2. Harreman hori esparru desberdinetan bizi daiteke:** familia, eskola, lagunak, aisialdia, parrokia,... Harreman esparru hauei Elkarite deritze. *Elkarite orok harremana eskatzen du*, ez bakarrik hainbat pertsonaz osatuta dagoelako, gure asmoez harantzago barne dinamikotasun bat sortzen duelako ere. Elkarite honetan pertsona gustora sentitzen da, bere eguneroko bizitzari zentzua aurkitzen dion lekua da. *Elkariteak aintzat hartzen nau*; baloratzen nautela, maite nautela sentitzen dut eta misio batera bultzaten nau, nire bokazioa garatzera bultzatzen nau. Harreman honetan dagoen doakotasuna gure desioetaz harantzago doan ur emari fresku eta gardena da. Doakotasuna harreman osasuntsuen iturburuak isurarazten dituen ur-bilatzailea da.

**3. Familia Elkarite gisa.** Familia lehenengo “elkaritea” izan beharko litzateke, non harreman guztiak doakoak diren, bakoitzak egiten duenaren edo bakoitzak etxetik kanpo daukagun iruditik harantzago dagoena. Familian pertsona bakoitzak daukagun amets bikainenak islatuta egon beharko lirateke. Zentzu honetan Familia Elkaritea giza harremanen laborategi antzeko bat da.

**4. Adiskidetasuna.** Giza harremanen forma perfektuena da. Izan ere, adiskidetasuna gizakion

artean agindurik, betebeharrik, debekurik ez dagoen harreman bakarra da. Adiskidetasunak bere oinarria, funtsa beregan dauka. Horregatik guztiz askea da. Lagun bat askatasun osoz berak nahi duelako maite nauen edo estimatzen nauen pertsona bat da. Gure lagunik onenak gure gurasoak, anaiak izan beharko lirateke; bikotekideak beraien artean, gurasoak beraien seme-alabekin. Dietrich Bonhoeffer-ek lagun bati ondorengoa idatzi zion 2. Mundu Gerran naziek erail baino lehenago: *“askatasunaren esparruan adiskidetasuna ondasunik preziatuena eta arraroena dela uste dut”*.

**5. La Salleko Joan Bautistaren intuizio handia.** *“Elkarrekin eta asoziatu”* lelopean gaur egun Salletar Elkaritea deritzogun elkaritea sortu zuen. Konpromezu pertsonal desberdinak dauzkaten pertsonaz osatutako elkariteak: Anaia Sekularra (Asoziaturik edo asoziatu gabe), Anaiak eta Sekularrak,... Hau da, Salletarrak. Eta Salletar Eskola ere Elkarite bat da. Azken finean, Salletar Elkariteak dinamizaturiko Eskola Elkarite bat izango litzateke. Horrela, pertsona desberdinen arteko harremanak (zuzendaritza, irakasleak, gurasoak, administrariak, begiraleak,...) ekintza hezitzailearen efektu positiboak ugaritzen ditu.

**6. Jesus, harreman soilaz harantzago.** Nazareth-eko Jesusek maitatzen, sendatzen, predikatzen duenean, doan egiten du. Horregatik jende xumea gerturatzen zaio, daukaten guztia ematen diote, baita beraien gaixotasunak, akatsak eta bekatuak ere, eta Jesusek bedeinkatzen ditu, sendatzen ditu, bizitza berri bat ematen die. Doako adiskidetasunetik eta ematetik sortzen den bizitza berria da. Giza harreman gorena da.



# Hezkuntza programak

Garai berriak bizi ditugu eta ikaskuntza garai berri hauetara moldatu behar da. La Salle Legazpik etengabeko berrikuntzarekiko duen konpromisoa betetzen jarraitzen du eta Ikaskuntzarako Testuinguru Berria (ITB) lantzen eta sustatzen duten erramintak aplikatzen dihardu. Horren adibide on bat Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) da.



## PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA (POI)

### Ikaslea, bere ikaste prozesuan protagonista

Azken garaietan irakaskuntzan izandako iraultza esanguratsuenetakoa irakaslearen eta ikaslearen rolen aldaketa izan da. Ikaslea ez da jada subjektu pasibo bat, irakasleari jaramon egiten diona ezagupen teorikoak barnertzen dituen bitartean. Orain ikaslea bere ikaste prozesuaren protagonista bihurtu da eta irakaslearen lana gidaritza-lana da, ikasleak bere kompetentziak garatu ditzan. Fisika, Kimika, Matematika edota Ingelesa irakasteaz gain, irakasleak ikasleari bere kabuz ezagutzen, egiten, izaten eta elkarbizitzen ikas dezan lagundu behar dio.

Eszenatoki berri honi erantzuten dio La Salle sareko eskolen metodologia, antolakuntza eta arkitektura eraldatzera datorren Irakaskuntzarako Testuinguru Berriak (ITB). Ikasteko modu berri hau ekimena eta autonomia pertsonalaren sustapenean oinarritzen da, prozesu kognitiboen suspertzean edota interakzioaren eta sormenaren indartzean. La Salle Legazpirentzat Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza ez da berria den zerbait. 2016-2017 ikasturtean metodologia berritzaile hau proiektu pilotu baten bidez jarri zen martxan gure ikasleak ikasteko era berri honetara ohitzen has zitezten. Hasierako fasea gaindituta, 2017-2018 ikasturtea erronka handiagoa izango da irakaslegoarentzat. Izan ere, urtarrean zehar POI metodologian oinarritutako proiektuak burutu ziren, baina oraingo honetan eskolako irakasleek beraiek sortutako materialetan oinarritutako proiektuak izanik, etapaka eta mailaka antolatuta. La Salle Legazpi apustu handia egiten ari da berrikuntzaren alde eta disziplina anitzetan oinarritutako proiektuen bidezko ikaskuntzan eta irakaskuntzan sinisten du. Hona hemen esperientzia bakoitzaren atzean dagoen lanaren adibide batzuk.



## Haur Hezkuntza: klariona eta kanikei esker betiko jolasak deskubritzen

Zertan jolasten ziren gure gurasoak edota aitona-amonak kontsolarik, ordenagailurik eta tabletarik existitzen ez zenean? Tekleatzeko eta klikatzeko ezer ez zegoenean? Haur Hezkuntzako neska-mutilek horixe ikertu behar izan dute, euren kabuz erantzuna bilatu eta praktikan jartzeko. Beraien familiei galdetu behar izan diete eta



kanikak, soldadutxoak, yo-yoa, paperezko itsasontziak eta lurra marrazteko eta txingoka jolasteko klariona deskubritu dituzte, besteak beste. Ikerketa lana aurrera eramateko, txikiek "Patrulla Canina"ren laguntza izan dute. Talde lanari eta irudimenari esker adituak dira euren arazoak konpontzen. Izan ere, "Jolastokiko proiektua"

izenburupean, egoerari buelta ematea lortu dute jolastokia espazio dibertigarri bihurtuz. Ahaleginak merezi izan du. Izan ere, ikusi dute ezkutaketan jolastea edo pilota batekin ibiltzea lagun artean gauza handia dela. Gainera, familien parte hartzearekin proiektua askoz ere dibertigarroagoa suertatu zaie gure ikasleei. Orain ezinezkoa da gure jolastokian aspertzea.





## Lehen Hezkuntza 1. eta 2. mailak

### Balearen bila, Natura eta hizkuntza aitzaki

Gure itsasoan azaldu zen balea aitzaki hartuta, Lehen Hezkuntzako gaztetxoenei ondorengo erronka bota zieten irakasleek: "Zer egiten zuen balea batek Donostiako Kontxan? Norbaitek ikusi al zuen?"

Hemendik abiatuta, Hizkuntza eta Naturako gaietan irakurketa, ulermena, animalia ornodunak eta ornogabeak landu zituzten. Nola? Hizkuntzen aldetik, asmakizunak sortzen, Benito Lertxundiren

"Balearen bertsoak" oinarri hartuta bertso errimen jokuak lantzen eta bertso entzunaldi batez gozatuz. Naturari dagokionez, animalia ornodun eta ornogabeen sailkapena egiten aritu ziren bideo ikustaldien birtartez, fitxak lantzen,... Lan giro ezinhobean hainbat saiotan aritu ondoren, ikasleek animalien hormirudia sortu zuten eta bertso saio paregabea antolatu zuten, non ikasitako guztia azaltzeko aprobetxatu zuten.



## Lehen Hezkuntza 3. eta 4. mailak

### On egin!

Gure ikasleen elikadura abiapuntutzat hartuta, LH 3. eta 4. mailako ikasleak "On egin!" izeneko proiektua lantzen aritu ziren. Proiektuaren helburua ikasle guztiek hamaiketako osasuntsua ikastetxera ekar dezaten kontzientziatzea da.

Proiektua Natura, Euskara, eta Arte Hezkuntza arloetan txertatu dute irakasleek mota desberdinetako ekintzak landuz: sukaldari txano bana egin zuten, egunerokoa bete, elikagaien piramide bat osatu, ohitura osasungarriak eta aholkuak idatzi eta, ordenagailuaren bidez, aurkezpenak edo dokumentuak sortu. Horretaz gain, informazio guztia bilduz, hormirudiak egin

zituzten lehenengo zikloan aurkezpenak egiteko eta agiri bat sinatu zuten, bai eurek eta baita gurasoek ere, non eskolara hamarretako osasuntsua ekartzeko konpromezua hartzen zuten. Bukatzeko, hitzaldi bat izan zuten gure ikasle ohia den Cynthia Criadoren eskutik. Bera erizaina da eta Goi Mailako ikasketak ditu Nutrizioaren inguruan. Hitzaldi honi esker ikasleek proiektua lantzen ikasi dutena errealitatean aplikatu daitekeela ikusi zuten. Irakasleen esanetan Ikasleak oso gustura ibili ziren proiektua aurrera eramaten eta, garrantzitsuena, ikasleak asko ikasi zutela ikusi zuten.





## Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak

### Diseinua eta ekologia uztartzen

LH5. eta 6.mailako ikasleak eskolako baratzearen diseinuan oinarritutako proiektuan aritu ziren lanean. Hizkuntzetako, Arte Hezkuntzako eta Naturako saioetan, eta Elkarlaneko Ikaskuntzaren metodologian oinarrituz, ondorengo "erronka galderak" izan zituzten proiektuaren abiapuntu: Nondik ateratzen dira gure jakiak? Eta barazkijale bagina? Nola iraun lurzorurik gabe? Proiektuari hasiera emateko, Baratzearen oinarria izan beharko lukeen lurzorua duen garrantziaz hausnartu eta planteatutako hiru galderai

erantzuten saiatu ziren, eta ideia guztiak gelako visualthinking batean irudikatzen joan ziren irakaslearen laguntzarekin. Hala nola, baratzearen oinarritzko ezaugarriak (lurzorua, fotosintesia, gunek,...), beharrezko tresneria (segurtasun-neurriak, hiztegitxoak...), landare bideragarriak (Bertatik Bertara proiektua,...), ereite-, landatze-, uza-bilketa, mantenimendu-egutegia (klima-ezaugarriak,...). Azkenik, astean zehar ereindako lana "proiektu-idatzi" batean islatu zuten, eta martxoa aldera, ziur bere fruituak emango dituela!



## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1. maila

### Instahistoriaren bidez gure historia ezagutzen

DBH 1. mailako ikasleek Bio-Geo, Hezkuntza Fisikoa, Ingelesa eta Lengua lantzen duen "Zerk bereizten gaitu?" izeneko proiektua eraman zuten aurrera. Proiektua definitu zuen gai nagusia ura izan zen. Izan ere, ibaia da gure bi herriak (Zumarraga eta Urretxu) banatzen dituen. Ondorioz, landutako ekintza guztiek ibaia eta urarekin harreman zuzena izan zuten nolabait.

Lehenik eta behin, araztegia bisitatu zuten uraren garbiketa prozesua ikasteko asmoz. Ondoren, Urola ibaiko ibilgu desberdinetan jasotako ur laginen analisi kimikoa egin eta emaitzak interpretatu zituzten. Azkenik, instahistoria bat egin zuten Urretxu eta Zumarragako herrietan jasandako aldaketak laburbilduz. Proiektuari amaiera emateko bi herrien arteko lehiaketa bat antolatu zuten eskolako patioan urarekin loturiko jolasen bitartez.





## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2. maila

### Teknologia eta Hizkuntzetan barrena

"Argiekin artelan bat egin al daiteke?". Galdera honi buruzko hausnarketa bat egiten ekin zioten DBH2. mailako ikasleek Proiektuetan Oinarritako Ikaskuntzaren markoan sartzen den talde lanari. Guggenheim Museoko arduradunek museoaren 20. urteurrena ospatzeko argiekin antolatu zuten ikuskizuna inspirazio iturritzat hartuz, Gabonetan apaingarri gisa erabili daitezkeen argiteri diseinuak sortzeko erronka bota zitzaien Teknologia, Lengua eta Ingeles ikasgaiak uztartuz.

Lehenik eta behin, Teknologiarri eskeinitako saioetan eskalak nola kalkulatzeko eta irudikatzen diren ikasi zuten talde kooperatiboetan lan eginez.

Ondoren, argiteria zintzilikatuko luketen kristaleraren eskalazko errepresentazioa marraztu zuten eta jarraian argi jokoak diseinatu zituzten. Azkenik, gaztelaniaz erabilera manual bat idatzi zuten eta ingelesez proiektua sortzerako orduan jarraitu zituzten pausu guztiak jasotzen zituen bideo-tutorial bat grabatu zuten. Gure ikasleen iritziz, errealitatean aplikatu dezaketen proiektu sortaile eta entretenigarri batean lanean aritu ziren jo eta ke, non alde zientifikoa (teknologia eta matematikoa) eta humanistikoa (hizkuntzak eta artea) bateratu zituzten.



## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 3. maila

### Gure ingurukoen bizi kalitatea hobetu nahian

DBH3n landutako proiektuak lau gai bildu zituen: Teknologia, Gizarte, Euskara eta Biologia. "Hobeto sentitu al naiteke?" izeneko proiektuaren xedea gure bizitza hobetzeko proposamenak sortzean datza: ikasleek sei arlo desberdinetan izaten ditugun ohiturak eta jarrerak aztertu behar izan zituzten eta horren diagnostiko bat lortu ondoren diagnostiko horretan oinarritutako aholku edo orientabide egokiak eman behar izan zituzten. Hauek izan ziren lantzeko edo garatzeko ikasleei proposatu zitzaizkien arloak: gure bailarako ondare kulturala (Legazpi, Zumarraga, Urretxu); gorputzaren ezaugarri egokien kanonak (Vitruvioren teoriari jarraituz); adimen

trebesatunak; gizarteratzerako trebetasunak; elikadura ohiturak; egoera fisikoa. Ikasleek arlo horiek aztertu behar izan zituzten eta, bakoitzaren alderdi garrantzitsuenak definitu ondoren, hamar galderako galdetegi bat sortu zuten. Galdera bakoitzak hiru erantzun posible eduki behar zituen, bakoitzak bere puntuazio egokiarekin. Azkenik, galdetegi bakoitzetik bizitzako arlo bakoitza hobetzeko hiru esaldi/aholku aterako lirateke lortutako puntuazioaren arabera. Horretarako, ikasleek Excel fitxategi bat sortu behar izan zuten non, formula egokiak aplikatuta, galdetegi hori diseinatu eta sortu behar izan zuten.






## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 4. maila

### Etorkizuneko egutegiak planifikatzen

“Demagun La Salle Legazpi ikastetxeak datorren ikasturterako egutegi bateratu berria jarri nahi duela. Hori dela eta zuei, DBH4. mailako ikasleak, asesore lanetan aritzea egokitu zaizue. Horretarako, egutegi berri bat sortu, nondik norakoak azaldu eta honen alde onak zein txarrak baloratu behar dituzue ondoren mahai inguru batean zuen egutegia defendatzeko”. Hau izan zen DBH4. mailako ikasleek Matematika, Gizarte Zientziak, Euskara eta Erlijioa uztartzen dituen “Zer egun da gaur?” landu zuten

proiektua. Erlijioaren eta Gizarte Zientzietako alorretan historian zehar garai desberdinetan eta kultura desberdinetan izandako egutegi mota desberdinak aztertu eta konparatu zituzten; Matematiketan, egutegi proposamen berriak sortu behar zituzten baldintza matematiko batzuk jarraituta; eta azkenik, Euskararen alorrean mahai inguru bat antolatu zuten non talde bakoitzak kooperatiboki sortutako egutegi proposamena aurkeztu eta defendatu behar zuten.



## Dibertsifikazio Kurrikularra

### Gure auzoak ezagutzen

Aspaldian Caracasera emigratutako zumarragatar baten senide batek eskatuta, Dibertsifikazio Kurrikularreko ikasleek gure herriko auzoak aztertu eta pertsona honi aurkeztu nahi izan zizkion “Auzoa ikertzen dugu” izeneko proiektuan. Bertan, gure herriaren bilakaera historikoa aztertu ondoren ibilbide bat antolatu dute Zumarragara

gerturatzen den edonork gure auzoak ezagutu ditzan. Hala ere, gure ikasleen lana ez zen horretara bakarrik mugatu; izan ere, proiektu hau auzo desberdinen alde onak eta alde txarrak aztertzeko aprobe txatu zuten eta, bide batez, hobekuntza plan bat ere proposatu zuten.



# Irakasleen txokoa

Hona hemen gure irakasleek gure ikasle eta gurasoei ikasgaiz ikasgai gomendatzen dieten materiala.





## Haur Hezkuntza


**"Pelayo y su pandilla": gai ugariei buruzko lanketa jolas desberdinen bidez**



## Lehen Hezkuntza

NATURA - GIZARTE

**Mapa kontzeptualak online osatzeko gunea (Kontua sortu eta listo!)**



EUSKARA

**BERRIaren estilo liburu digitala.**

Idaztean - eta irakurtzean - izan ohi diren hainbat arazo seinatu eta konponbide praktikoak biltzen ditu.



**Bertsoak sortzeko oinarriak**

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko

**Webgune interesgarria gai ezberdinei buruzko jolas eta ariketekin**



Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko

MATEMATIKA

**Oinarritzko matematikan trebatzeko gunea**



TUTORÍA

**Ikasgai desberdinak birpasatzeko webgune dibertigarria**



**Seme-alaben heziketari buruzko 30 gomendio**

## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

GIZARTE

**Handia filma historikoa, XIX. Mendeko Euskal Herria lantzeko**



INGELESA

**Test your vocabulary with crosswords!**



EUSKARA

**Galtzagorri Elkartearen iritziz, hona hemen adin bakoitzerako ezinbestekoak diren irakurketa liburuak**



## Rincón del profesor

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko

PLASTIKA

**Zure komikiak sortu itzazu programa honekin!**



ORIENTAZIOA

**"Arrakastaruntzko bidea"**



FRANTSESA

**Voyez cet amusant film et pratiquez le français pendant les vacances! Zip et Zap et le club de marbre**





# Ikasleen txokoa

Gure ikasleen lana ez da azterketetara eta etxeko lanetara mugatzen. Ekintza pila bat burutzen dute eta oso interesgarriak diren banakako zein taldeko lan nahiz proiektuak egiten dituzte. Hona hemen adibide batzuk: gure ikasleak lanean!








HH 2 urte / Arbela



**HH 2 urte / Komuneko paperarekin jolasean**



## HH 2 urte / Hankekin esperimentatzen



**Mikel Fraguak** Baso Atlantikoaren inguruko ezaugarriak jasotzen zituen lana aurkeztu zien bere taldekideei, konpetentzia guztiak barneratuz.



## HH 2 urte / Irinarekin esperimentatzen



## Cursos de cestería en el programa curricular de las ikastolas y colegios de Urretxu y Zumarraga

Tras varios años impartiendo cursos de cestería en las ikastolas y colegios de Urretxu y Zumarraga, y tras una experiencia muy positiva, los cursos de cestería han pasado a formar parte del currículo curricular de los centros educativos de dichos municipios.

Todos los usuarios y profesionales del centro de día de Urretxu han realizado una labor de socialización de las personas con necesidades de apoyo, utilización para ello la fabricación de cestos y ejerciendo de profesores de alumnos de primaria.

Bideoa ikusi  
Ver video

### LA SALLEKO TESTIGANTZA

ASPACE, ikasle batzuentzako ezaugarria zen arren, Garvin paralisia duten pertsonen integrazioan laguntzen duen erakundea bezala ezagutzen gurea gihienok. Hala ere, bai gure eskolak baita ASPACEk ere bere esparruan murgildularik egon gara orain arte.

Komunikagarri eta sort sozialak eskertu, zuen atak ingurura irteerik dituzela kementatu ginenem, eta segituan adostu ahal izan gurekin eta bion herriemakak erabakiak zirela. Hainbat zantzuak: SASKIGINTZA.

Oso erraza izan da zuen eguneroko jarduna gure curriculumean sartzea, baina, ez da esparru hau izan gehien ase gaituzena. Saskigintza aitzaki, Mihelena, Oihanoren, Aitorren, Rebecaren, Ederren eta Miriamen doinak adierazgarri izan ditugu, eta teknologia berririk zein ibon. Igone eta Arantzen laguntzaz, berrin betebeharrak burutzeko gai direla demostratu digute, eta gu gurekin ikaskuntzan aurrera pasorak ematen lagundu digute. Gurea gerturatu duren LAGUNE giza-espazioa gozatzeko aukera izan dugua, eta alaitasuna, gertutasuna, naturaltasuna, umiltasuna, eskerria eta pazientzia bezalako balioak izan dira guretzako eromango ditugun ikaskuntzarik oporrenenak.

Gizartearen denak osatzen dugua, eta gaitasunek ez gaituzte hobeketa edo boteretsuagorik egiten, elkarlana eta lagun urloarekiko errespetu izango dira etorkizun oparoen eskainiko dizkigutenak. Horregatik, segi horrela, LA SALLEKO atak irteerik izango dituzue beti, eta beneran mila esker eskaini dituzueen partezatik.

Hemen gaituzte, nahi duzuenenak!

Tras la experiencia de estos años y gracias a la decisión de los colegios de primaria de los dos municipios los cursos de cestería son parte del programa educativo anual de Urretxu-Zumarraga Ikastola, Gaiñuri Ikastetxea y La Salle Legazpi.

- Gurekin zuen ikaskuntza berrin al da hurbilean aurrerik ateratzen?
- Gurekin zuek nola erabaki izan duzue? Laguntza ematen duzue? Zuek nola erabaki izan duzue?
- Zuek erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue?
- Zuek erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue?

- Zuek erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue?
- Zuek erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue?
- Zuek erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue?
- Zuek erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue? Zuek nola erabaki izan duzue?

### NUÉVAS INCORPORACIONES

Irigo Acha,  
receptionista

### Jubilaciones

Javier Ruperto Alzupe  
Patricia Sarasqueta  
Angel Albizu





## HARA PROIEKTUA . LH 4.maila

LH 4. mailako ikasleek Hara proiektuaren barnean dagoen "Sarea" izeneko ekintza gauzatu zuten gure harremanak nolakoak diren eta nola hobetu ditzakegun helburutzat edukiz.



## LH5-6 / Gabonetako apaingarri jasagarriak

Urteak dira Gabonetako Apaingarri Jasagarriak ekimenean parte hartzen dugula. Lehen urteetan botilak eta CDak erabili bagenituen ere, azken bi urteotan, gure sormena erakutsi nahi izan dugu. Aurten, nonahi aurki ditzakegun "plastikozko poltsekin" egindako loretxoek eta oihal zatiek gabon zoriontsuak opatzen zizkigun ZORIONAK mosaikoa egiteko aukera eman digute. Olentzero eta Mari Domingi oso pozik jarri ziren!



## DBH1 HF - Komikia

## LENGUA - DBH 4

Click egin ondorengo lanetan

## Janire García



## Álex Cantero:




## Eider Rueda



## Urretxu-Zumarragako Gabonetako Idazlan Lehiaketako sarituen lanak

Click egin ondorengo lanetan

## 1. SARIA. IRENE IBARZABAL



## AIPAMEN BEREZIAK:

1. MIKEL SANCHEZ
2. IRAIDE DELGADO
3. IRENE CLEMENTE



## SEIN – SOLIDARITATEA (DBH3. maila)

Aurreko abenduaren 18an, SEINeko saioetan, Maite Pardinaren bisita izan genuen. Maite, Zarautzko La Salleko orientatzailea izateaz aparte, zenbait urtetan udaran bai boluntario bezala eta bai Jende Xumea taldeekin arduradun gisa herrialde desberdinetara joan da (Argentina, Bolivia, Peru) hango jendeari laguntzeko.

DBH 3. mailako ikasleak Solidaritatearen gaia ari dira lantzen aurtengo proiektuan. Input fasearen barruan, solidaritatea definitu eta bideo labur batean islatu zuten, taldeka, hitz horren ideia nagusiak azpimarratuz. Bigarren une batean, gure inguruko erakunde eta talde solidarioen informazioa bilatu eta aurkezpen batean bildu zuten, haien xedea eta egiten duten lana azalduz. Eta, Output faseari ekin aurretik, giro horretan mugitzen den jendearen esperientziak gertutik ezagutu nahi izan genituen. Horregatik kontaktatu genuen Maiterekin.

Berak esan digun bezala, solidaritatea praktikatzeko gogoia behar da. Baina fundamentuzko laguntza eskaini nahi badugu prestatu ere egin behar gara, joan behar dugun tokiko ezaugarriak ezagutuz eta eman dezakegun laguntza aurreikusiz eta planifikatuz, inprobisazioa ekiditeko.

Bi orduz egon zen gurekin eta argi gelditu zitzaigun horrelako esperientzia bizitzea ez dela ezinezko bat. Aukera izan dezakegu, nahi badugu, eta benetan merezi duela konprobatu.



# Anai-arrebak eskolan

La Salle Legazpi familia askok osatzen dugun familia handi bat gara. Atal berri honetan gure egunerokoa osatzen duten eta gure lanari zentzua ematen dioten familia bereko anai-arrebak ezagutu nahi ditugu. Hona hemen gure eskolari buruz kontatu digutena:

1. Hitz batekin definitu ezazu eskola.
2. Zein aldaketa nabaritu dituzu aurten?
3. Zein aholku emango zenioke zure anaiari / nebari / ahizpari / arrebari?



**Mikel Peña**  
DBH3

- 1.- Esfortzua
- 2.- Dena zailagoa da aurten
- 3.- Dibertitu zaitez

**Jon Peña**  
HH 2 urte

- 1.- Jolastea
- 2.- Nire lehenengo urtea da eskolan
- 3.- Ondo pasa




**Endika Ratón**  
DBH2

- 1.- Ikastea
- 2.- Liburu digitalak dauzkagu
- 3.- Ikasitakoa birpasatzen joan zaitez eta gaiak ondo prestatu itzazu

**Maialen Ratón**  
LH5

- 1.- Lagunak
- 2.- Ordenagailuekin egiten dugu lan, paperezko libururik gabe
- 3.- Ikasi eta ikasturtea gainditu ezazu



**Janire Martínez**  
LH4

- 1.- Ikastea
- 2.- Gauza zailagoak egiten ditugu
- 3.- Euskaraz hitz egin ezazu

**Alain Martínez**  
HH5 urte

- 1.- Lanak
- 2.- Maskota berria daukagu gelan
- 3.- Ondo pasa





# Familien Txokoa

Familiak eskola elkartearen beste zati garrantzitsu bat dira. Hona hemen beraiei eskainitako tarteak.





## Ate irekien eguna

Ezin zitekeen beste era batera izan: gure familiak izan ziren urtarrean ospatu genuen Ate Irekien Egunaren protagonista nagusiak.

Hona hemen gure familietako kideetako batzuk, beti ere gure eskolaren alde.



## Gogoeta: Konfidantza

## FIDATU ZURE BURUAREKIN

Jaiotzen garenean, txiki-txikiak gara eta ez dago ia ezer laguntza gabe egin dezakegunik. Hazi ahala, gure gorputza "aurkituz" joaten gara; pixkanaka gure ingurua ezagutzen goaz eta gure trebetasunak abian jartzen dira. Laster, hitz egiten eta komunikatzen hasten gara.

Nolatan ikasi ditu umetxo txiki horrek hainbeste gauza? Erantzuna oso sinplea da: guztiok dugu ikasteko ahalmen edo gaitasun handia, jaiotzen garen unetik. Eta hazten garenean? Zergatik ikasten dute ume batzuek besteek baino azkarrago eta hobeto? Pertsona guztiak gara desberdinak eta denok gaitasun desberdinak ditugu. Ume eta heldu bakoitzak ahal duen guztian garatu behar du bere "dohaina". Baina ezin gara konformatu erraz egiten duguna ondo egitearekin; beste gauza asko egiteko gai gara, nahi izanez gero. Lehenengoan ateratzen ez bazaigu, aterako zaigu bigarreanean edo hirugarrenean,... Eta ez bada ateratzen? Ba berriz saiaturiko gara.

## FIDATU BESTEENGAN

Txikiak ginenean, ezin genuen bakarrik ezer egin, baina hantxe zeuden amatxo, aitaixo, aitona-amonak, ... gu zaintzeko eta guri laguntzeko. Haur-eskolan eta ikastetxean ere aurkituko genituen gauza berriak egiten saiatzera animatzen gintuzten pertsonak. Desafio edo erronka berri bat planteatzen dugunean, gerta daiteke eragozpen asko aurkitzea aurrean edo bidean. Ausartuko gara horietako batzuk gainditzen, gure gaitasunetan fidatzen garelako, baina beste batzuk... Uff!... gaindiezinak irudituko zaizkigu. Hortxe daude maite gaituztenak, guri eskua luzatzeko, bidea errazteko eta edozertan laguntzeko.

Besteengan fidatzeko unea da. Pertsonok, bai umeak bai nagusiak edo helduak, besteen beharrean gaude. Batzuetan, nahi dugun lekura iristeko, norbaitek laguntzea eta bultzadatxo bat ematea behar dugu. Beste batzuetan geu izaten gara laguntzaile, gure lana eta ahalegina jartzen ditugunak,... eta denok batera, guztiok elkarrekin urrutiago iritsiko gara.

Ez ahaztu: zuk bakarrik ezin baduzu, beti dago hurrean fidatzeko norbait.

## FIDATU, MUNDO BERRIA POSIBLE DA ETA

Gauzak egiteko eta lortzeko gai gara, hori badakigu. Batzuk norberak lor ditzake, besteetarako besteen laguntza behar dugu. Orain, beharbada, ezinezkoa iruditzen zaigu gure eskolako edo etxeko lanaz haraindi joatea. Hala ere, badakigu munduan bidegabekeria asko gertatzen direla: gosea, gerrak, miseria, sufrimendua, ...Hori ez da bidezkoa! Eta zer egin dezakegu guk? Ezin gara beste herrialde batzuetara joan jatekoa, arropa edo jostailuak eramatera, baina daukaguna aprobetxatu dezakegu eta apetatsuak ez izaten saia gaitezke. Hurbilekoekin ondo porta gaitezke: maitasunez eta begirunez tratatu, geuretik utzi edo eman, atseginak, eskuzabalak eta esker onekoak izan,...

Denok jarri dezakegu geuretik zerbait gure mundu hau mundu hobea egiteko. Hasteko, hurbilen dugun mundu-atala hobetzen saia gaitezke, beste atala ere gure beharrean dagoela ahaztu gabe.

## FIDATU EXIJITZEN GAITUZTENENGAN ERE

Fidatzeak esan nahi du inolako beldurrik gabe jaramon egitea. Norbaitengan fidatzen bazara, ez duzu zalan-tzan jartzen esaten dizuna, ziur baitzaude ez dizula hutsik egingo. Konfiantzazko harreman oro maitasun-ean dago oinarritua. Maite zaituenarengan fidatzen zara, dakizulako zuretzat ez duela gauza txarrik nahi. Askotan gurasoek ulertzen ez ditugun gauzak egiten dituzte eta gero, gainera, gure onerako dela esaten digute. Gauza berbera gertatzen da irakasleekin. Irakasleek ere maite bagaituzte, zergatik egiten digute errieta? Eta aitona-amonez eta anai-arreba nagusiez ere luza gaitzek.

Gertatzen da, bide horretan, askotan nekatu egiten garela edo nondik joan ondo ez dakigula. Maite gaituztenen pertsonak urrutirago begiratzeko gauza dira, adin eta esperientzia handiagokoak direlako. Guretzat onena baino ez dute nahi, eta ondotxo ezagutzen dute ahaleginaren balioa. Horregatik, batzuetan exijitu egiten digute: ahalegin handiagoa egin dezagun eta nagikeriari edo erosokeriari gehiago egiten utzi ez diezaiogun. Horregatik fidatu behar dugu maite gaituztenengan, zergatik exijitzen diguten batzuetan ulertu ez arren. Eskerrik asko, gurasook, aitona-amonok, irakasleok,... maitasunez exijitzen diguzuelako.

# Entzuniezaidazu, mesedez

## Anai Mikel Arbizu

El Pais egunkariaren bineta bitxi batean, zezen odoleztatu bat azaldu zen, toreatzaileari finko begiratuz; animaliairen esaldiak, ia hiltzorian, horrela zioen: “Eta zergatik ez genuen hitz egin?” Berandu samar jada, hor bota zion proposamena.

Elkarriketari ekitea, akordio edo itunak egitea... nolabait arrazoizkoa dirudi. Hala ere, denek ez dute horrela pentsatzen, ezta jokatzeko ere. Entzun eta ez hitz egin hainbat, amore eman pixka bat bada ere, errespetuz iritzia eman, ez da egiteko erraza. Hurbilekoen artean ere jarrerak nahiko ezberdinak dira: Nelson Mandela bera ere, bere jendeak salatzen zuen "etsaiari eskua emategatik".

Prentsa eta beste komunikabide batzuen berriak tirabira, indarkeria, irainak, sarraskiengatik... nabarmentzen dira. G. Steinerrek, judutar pentsalariak, duela gutxi baieztatu zuen: "Europa oraindik existitzea mirari bat da" (edo mundu osoa).

Uruguayko presidente ohiaren, Jose Mujika, jarrera xaloa eta bere etxe apala, Donald Trump "laguna"ren (barkatu laudorioagatik) aurpegi oldarkorra eta bere Etxe Zuria dotorea alderatzea nahikoa da. Ez; denak ez gara berdinak. Ez jarreran, ez portaeran.

Mehatxua xehatzen dela esan genezake; nazioarteko enbataren danborrak entzuten dira. Jakintsu txima-luze Albert Einsteini erreportari batek galdetu zion, 1953 urte hartan, zein arma mota izango ziren erabiliak hirugarren mundu gerran. Eta erantzun zuen: "Ez dakit; baina laugarrenean zeintzuk

erabiliko diren ziurta  
diezazuket: harriak”.

Hiletak edo erasoak  
urrutikoak badira, ez  
gaituzte hainbeste  
izutzen; hurbiltzen  
direnean eta  
zipriztintzen  
gaituztenean beldur  
handiagoa sartzen  
zaigu. Hozkailu batetan  
sarturik zeuden  
hiltzaileen txiste txar  
hura bezala da. Zer



egiten dute barruan? Ba, "Gerra hotza". Baina, hozkailutik ateratzen badira, zorigaitza hasten da.

Afrikako hegaldetan hirugarren munduko eta hezi gabeko etnia batzuk bizi direla irakurri izan dudala gogoratzen dut; basati batzuk, bosquimanoak deritzate. Margaret Meade, antropologoak, tribuen arazo baten aurrean, bandoak aldendurik esertzen direla kontatzen du. Bozeramaileak proposamenak esaten hasten dira (ordenaz, txandaka); esaldia eta erantzuna (hitz egiten utziz). Gero, poliki-poliki, garrasiak, irainak. Norbaitek objektu bat jaurtitzen duenean eta aurkaria zaurituta uzten duenean, bilera bertan behera geratzen da. Hitz batez, herri garatuetan egiten dugun bezala.

Denok egia daukagula, arrazoa eta legearen jabe garela pentsatzen dugu. Ez gara konturatzen eskubidea edukitzea ez dela beti bidezkoan egotearen gauza berbera. Zalantzari utzi beharko litzaioke lekurik; baita ere monumentu bat egin. Zer ona den ideiez aldatzea! Esana izan da eta arrazoiz, arriskutsuago dela liburu bat bakarrik irakurri duena, inoiz ezer irakurri ez duena baino.

Elezaharrak basoan sute izugarri bat izan zela kontatzen du. Animaliek hondamena behatzen zuten; kolibri txikia bakarrik mokoan ur tanta bat bilatzera joan zen. Armadilo erraldoiak, errieta egin zion: "Erotuta al zaude?" Txoritxoak erantzun ziolarik: "Badakit, baina ni nire zatia egiten ari naiz".

Elkarrizketan jardutea ia mito bat da, utopia bat, zerbait lortu ezinekoa; kolibriarena bezala. Baina, denon artean, kalean, dendetan, enpresetan, eskolan, etxean... baita beharbada politikoien topaketetan ere, hitz egiten ikasi daiteke, bakean eta begirunez mintzatzen.

150 urtez biziko den  
pertsonek, seguruenik,  
jadanik jaioa da gaur.  
Orduan, elkarriketan  
jarduten jakingo al du?
















## LA SALLEtik – UGLEerako bidea:


Ondorengo ikasleek LaSallen ikasi eta gero,  
gaur egun UGLE eskolan ikasten ari dira.  
Irakur ezazu beraien esperientzia!!



### MAIALEN MIGUELEZ

Batxilergoa Zientifikoa  
16 urte

Ate-lreki jardunaldi batzuetan egon ondoren UGLEa etortzea aukeratu nuen. Asko gustatu zitzaidan: 1/ etxetik gertu izatea, 2/ ikasle-irakasle gertuko harremana, 3/ egiten ziren irteerak... Baina arrazoi nagusia praktikak izan ziren. Beti pentsatu izan dut gauza bat gustatzen zaizun ala ez jakiteko probatu beharra daukazula; asko konbentzitu ninduten laborategian egiten ziren praktikak edo teknologikoak robotak. Orain egia esanda, oso gustora nago hartu nuen erabakiarekin.



### DAVID EXPOSITO

Gizarte Zientziak Batxilergoa  
16 urte


Erabakitzerako orduan hainbat zailtasun eduki nituen: Nora joan? Zer egin? Eskolak bisitatzean gauzak argiago ikusi nituen: beste eskolak oso ondo zeuden, baina azkenean UGLE aukeratu nuen. Arrazoiak? Etxetik gertu zegoen eta gustatzen zitzaizkidan gauza asko zeuden: pertsonak, instalazioak... Urte erdia daramat UGLEn eta, egia esan, ez naiz damutzen hartutako erabakiaz. Berrito aukeratu beharko banu, dudarik gabe, UGLE aukeratuko nuke.



### NEKANE URKIOLA

Batxilergo Teknologikoa  
16 urte

Beste eskola batzuk gustatu zitzaizkidan arren, ez nuen uste trena egunero hartzeko gai izango nintzenik. Horregatik, UGLE aukeratu nuen. Nire aukera Batxilergo Teknologikoa izan zen eta klasean bi neska bakarrik gauden arren, aukera egokia hartu dudalakoan nago. Horrez gain, aukeratutako batxilergoan, eskola desberdinetako jendearekin egoteko aukera daukat eta hori aberasgarria dela uste dut.



### GAIZKA MELENDEZ

Erdi Maila: Mantentze - Lan  
Elektromekanikoa – 16 urte

Hasieran ez nuen oso argi nola jarraituko nituen nire ikasketak. UGLE eskola ezagutzera etorri ginenean, ikusitakoa oso gustuko izan nuen. Horrez gain, betidanik izan ditut gustuko elektrizitatearekin erlazioa duten gauzak eta hori dela eta, aukeratu nuen Erdi Mailako Mantentze-Lan Elektromekanikoko zikloa. Jendeari eskolako ikasle-irakasle harremana nolakoa zen galdetu nion eta oso ona zela komentatu zidaten eta guztiz ados nago eman zidaten informazioarekin.



# UROLA GARAICO LANBIDE ESKOLA

www.ugleskola.org



- Batxilergoak
- Erdi Mailako Zikloak
- Goi Mailako Zikloak
- Oinarrizko Lanbide Heziketa
- Langabetuentzako Ikastaroak
- Enpresa Zerbitzuak



Todo lo que necesitas  
en un Chrombook



## Hardware:

Portátiles, PCs  
Tablets  
Impresoras  
Servidores  
NAS  
Videovigilancia IP

## Software:

Gestión Integral  
ERP  
Desarrollo a medida

## Servicios:

Asistencia técnica  
Mantenimiento  
Soporte Remoto



### CTL J4 Plus

Cortex-A17 RK3288 de  
cuatro núcleos.  
11.6" 1366x768 HD IPS  
Memoria 4 Gb DDR3L  
16 Gb eMMC HDMI 2.0 -  
2 x USB - 1 x Micro SD -  
Wifi 2x2 02.11/b/g/n/ac  
and 5.0G ,Bluetooth 4.0

**245€** Canon LPI Incluido



### CTL J5

Intel N3060 (2.48Ghz /  
2M Cache) Braswell  
11.6" HD IPS 1366x768  
**Táctil** Memoria 4 Gb  
LPDDR3 32 GbeMMC  
3xUSB 3.0 1x HDMI1x  
Micro SD HDWeb Wifi  
2x2 802.11ac Bluetooth

**305€** Canon LPI Incluido

Tienda Online: [tienda.inforline.net](http://tienda.inforline.net)

Labeaga 58 Urretxu ☎ 943724121